

# KROS TXIKIAREN ARAUTEGIA

## 1.- DATA ETA LEKUA

Herri Ametsa Talaia Kros Txikia **2025eko urtarrilaren 26an**, goizeko **09:00etan** hasiko da. Abiapuntua eta helmuga Herri Ametsa Ikastolan izanen dira. **Ez da lehiaketa, honenbestez, ez da sailkapenik egongo. Helburua ume guztiek ongi pasatzea eta ibilbide osoa egitea da. Horretarako, une orotan boluntarioen laguntza izanen dute.**

## 2.- IBILBIDEA

Hainbat ibilbide daude, umeen adinaren arabera. **Umeak boluntarioekin aterako dira eta helmugatik gertu bakarrik iristen utziko zaie.**

**DBH** (gutxienez 5 ikasle; gehienez, 20): 800m. 09:00etan.

**LH 4, 5 eta 6** (gutxienez: 5 haur; gehienez, 20): 500m, 09:05ean.

**LH 1, 2 eta 3** (gutxienez: 5 haur; gehienez, 20): 200m, 09:10ean.

**HH 3, 4 eta 5** (gutxienez: 5 haur; gehienez, 20): 100m, 09:15ean.

## 3.- IZEN-EMATEA

**3 eta 15 urte bitarteko haurrek** esku har dezakete, **doan**. Izena emateko epea **2024ko abenduaren 17an, eguerdiko 12:00etan**, hasiko da eta **2025eko urtarrilaren 26an** bukatu. Izen-ematea [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean egin behar da. **Ezin da izen-eman gabe, edo beste pertsona baten zenbakiarekin, haren identitatea ordeztuz, proban parte hartu.**

## NOLA EGIN IZEN-EMATEA?

Parte hartzaile guztiek [www.herrikrosa.eus](http://www.herrikrosa.eus) webgunean sartu behar dute eta, lehen aldia bada, hantxe erregistratu. Ondoren, mendi martxan izen emateko aukera izango dute.

**Nortasun Agiririk ez dutenek** (haurrek, alegia) erregistroko txantiloia bete behar dute eta "identifikazio kodea" jartzen duen lekuan ondorengo jarri:

- aurrena, haurraren izenaren lehen letra,
- jarraian, lehen deitura osorik eta,
- azkenik, jaiotza-data (hasieran, urtea, lau zenbakiez; gero, hila eta eguna, bina zenbakiz).

Ez da tarterik utzi behar: hots, 2014ko maiatzaren 30ean jaiotako Jon Mikel Gartzia Lasa parte-hartzaileari **jgartzia20140530** jarriko zaio. **Aurreko edizioetan erregistroa egin zuten adin txikikoek ez dute kode berririk sortu behar: aurreko edizioetako kode bera sartzeari nahikoa izango da.**

Erregistroko datu guztiak betetakoan, "**Ikastolako ikaslea edo haurra izanez gero**" deritzan gunean sartu eta aurretik adierazitako identifikazio kodea jarri ondoren, izena eman ahal izango dute.

#### **4.- OPARIA ETA HAMAIKETAKOA**

Parte hartzaile guztiek opari zozketan parte hartuko dute.

**Eguneko ekintza guztiak amaitu ostean, hamaiketako polita** eskainiko da.

#### **5.- INGURUMENA**

Uliako zati bat **Kontserbazio Bereziko Eremua** da. Beraz, tokiok ahal bezainbeste zaintzeko eskatzen da.

Natura-ingurunearen errespetuarekin eta zaintzarekin lotuta parte-hartzaileentzako arauak eta betebeharrak:

- Ingurumena errespetatu. Ez kalteku baliabide natural, geologiko, kulturalak...
- Antolakuntzak ezarritako eta markatutako ibilbidea errespetatu, bertatik irten gabe.
- Ez bota zaborrik (hondakinak, bilgarriak, janaria, materiala,...) antolakuntzak baimendutako lekuetan izan ezik.
- Beste parte-hartzaileen ingurumen-jokaera arduragabeak antolakuntzari jakinarazi.

#### **6.- SEGURTASUNA**

**Boluntario eta Gurutze Gorrikoen** laguntzaz, antolatzaileek kros txikia ondo ateratzea eta arazorik ez izatea bermatuko dute.

**Antolakuntzak eskubide osoa izango du ibilbideetan aldaketak egiteko eta eguraldiak edota beste eragileren batek hartaratuta balego, kros txikia bertan behera uzteko.**

## **7.-ERANTZUKIZUNA**

Kros txikian izena emanda dauden parte-hartzaile guztiek guraso edo legezko tutoreen ardurapean parte hartzen dute eta beraz, bere gain hartu beharko dituzte egon daitezkeen arriskuak. Gurasoek edo legezko tutoreek, haur parte-hartzailearen arduradun direnez, ziurtatuko dute haurrak ez duela kros txikian esku hartzeko eragozpenik eta, horrenbestez, esku hartzeko baimena ematen diotela.

**Bestalde, antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu parte-hartzaileentzat.** Hala ere, antolakuntza ez da inoiz, norberaren egoeratik edo ekintzengatik sortutako ezbeharren, zuhurtziagabekeriaren, arduragabekeriaren, gaixotasunen, arazo fisikoen, arauak eta arautegia ez betetzearen edo proba egiten den lekura joan-etorrietan sortutako istripuen erantzule izango. Parte-hartzaileek, salbuetsi, uko egin eta libratu egiten dituzte erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak eta beste korrikalariak partaideekiko eta haien oinordeekiko izan ditzaketen erantzukizun zibileko arduretatik, eta onartzen dute antolakuntzaren, laguntzaileen, babesleen eta beste partaideen aurkako salaketarik ez dutela jarriko.

## **8.- IRUDI ESKUBIDEAK**

Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea.

## **9.- DATUEN BABESA**

Parte-hartzaileek euren datu pertsonalak kirol helburuetarako erabiltzeko baimena ematen dute.

## **10.- ARAUTEGIAREN ONARPENA**

Ekintza honetan parte hartze hutsak arauok onartzea dakar haur parte-hartzailearen arduradun diren guraso edo legezko tutoreen aldetik.

### **Argibideak**

**☎:** 943 393 520

**Emaila:** kirolkomisioa@herriametsa.com